

Izotza bezain hotz



Zorrak ordaindu ezinik, bere buruaz beste egin zuen.

Minari eta gorputza mailatzeari zion beldurra gainditu ezinda, makina bat pilula hartu eta bizitzako ametsik sakonenari ekin zion. Jakina, ez zen berriro esnatu.

Gosaltzeko ordua zen eta Martin sukaldean zen, ohi bezala, egunari aurre egiteko moduko gosaria prestatzen. Azkenaldiko bere egin beharra hura zen: etxeaz eta alabaz arduratzea, ez baitzuen lanik. Emaztea jaikitzen ez zela ikusita, logelara abiatu zen, kafe usaina lagun.

- Maitea, izara artean goxo zaudela badakit, baina ez bazara altxatzen berandu iritsiko zara lanera.

Hitz goxoek ez zuten erantzunik izan.

- Laztana, jaiki behar duzu. - Xuxurlatu zion.

Eskuarekin Aneren aurpegia ukitu zuen eta, une horretan, hamaika oroitzapen etorri zitzaizkion bisitan. Izotza bezain hotz. Eta malko betean errepasatu zituen guzti-guztiak, ohean eserita, bere emazteari begira.

Duela hogeitun urte ezagutu zuten elkar, Zarauzko hondartzan. Martin bere lagunekin zen, udako egun batez behar bezala gozatzen eta, Ane, bere gurasoekin. Begiak Martinengan kendu ezinik eman zuen arratsaldea. Tipo liraina zen, atentzioa ematen zuen horietako bat. Eta Ane ere, neska ederra.